

Carlos Blanco Aginaga izena izango du Irungo San Juan plazako liburutegiak

Carlos Blanco Aginaga (Irun, 1926- La Jolla, AEB, 2013) idazle eta irakasle irundarraren izena eramango du San Juan plazaren behealdean jarriko duten udal liburutegi berriak. Jose Antonio Santano alkateak gainontzeko alderdietako ordezkariari eman die jada erabakiaren berri, "letren eruditua izan zen, irundarra eta mundu mailako sona izan zuen. Horrela betirako geldituko da bere lana aitortua".

Udalaren arabera, XX. mendeko Espainiako literaturaren "ahotsik kritikoenetakoa" izan zen Blanco, eta Espainiako literaturako 1898ko Belaunaldiaren ezagutza zabala zuen, "askatasunaren defendatzaile ere izan zen iheslari izan zen heinean".

Bere bizitza

1936ko gerra hasi zenean Hendaiara joan zen iheslari, eta 1939an Mexikora joan zen bera eta familia osoa; han hasi zituen unibertsitateko ikasketak. Harvard-eko (Ameriketako Estatu Batuak, AEB) unibertsitatean beka lortu ondoren han jarraitu zituen ikasketak, eta 1948an Floridako unibertsitatean lizentziatu egin zen.

Ikasketak bukatuta marinel bezala lan egin zuen tarte batean, ondoren Mexikora itzuli eta Letra Hispanikoetan doktore izatea lortu zuen. Ondoren AEBra joan zen, eta Ohio, Johns Hopkins eta San Diegoko unibertsitateetan katedradun bezala lan egin zuen. 1980ko hamarkadaren bukaeran Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle izan zen.

Bere lanik aipagarrienak El Unamuno contemplativo, La juventud del 98, edo Historia social de la literatura española izan dira ikerketaren alorrean; Un tiempo tuyo, Carretera de Cuernavaca edo En voz continua izan dira eleberrien atalean egin dituen lanik aipagarrienak.